



LIBURUA

Erresistitzea denean garaitza



IRAUTERA CASTILLO SUAREZ

ELKAR, 2019. POESIA

IGOR ESTANKONA

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio. Haizeak pinuaren adaburua lez inguratu du bizitzak, eta *Irautera* eder honen bitartez ekarri dizkigu zaur-garritasuna eta indarra, etsi gaiztoa eta kreatibitatea. Liburu bakanak dira horrela laburbiltzen dituztenak garai bateko gazi-gozaok, non gazia ez den hain gazi, non gozoa den *saihestezin* esateko beste modu bat: "Maitetasunak badu abantaila bat bederen:/ zauririk ez da egiten orbainen gainean".

Castillo Suarezzi zer edo zer gertatu zaio beraz. Eta nori ez.

Musika talde bateko kide guztiak momentu magiko batek jota egon eta diskoa grabatzen dutenean bezala, grazia egoeran daude hemen Castillo guztiak. Autoafirmazioarena, bakardadearena, feminitatearena. Denek batera konposatu dute pieza bat bakar, liburu honetako

poema guztiek osatzen baitute bakarra. Bere aurreko liburuak baino liburuago, *Irautera* hiztegi bat ere bada maitasunaren botanikaz hitz egiten diguna. Eta aurreko liburuen aldean sinbolismo arean gutxiago ere nabari zaio, errealismo minimalista bat darabil-eta, non ñabardura guztiak diren inportanteak: "Ez kantarik, ez argazkirik./ Joan zinenetik/ saihesten ditut mendiak zein ibaiak".

Hizkuntza bera bihurtzen da honen bestez bide bat baso-paisaje batean barna doana: "Nik elurra maite dudala esango dizut,/ eta iparralderantz joango gara,/ (...)/ Galdu dudak guztia zarella iruditzen zait batzuetan". Indefinizio horretan, agurraren eta esker onaren artean gauduan bezala gauzka zur eta lur, ahapaldi botere-tsu eta eleganteetan gogoa lotzen zaigularik gu geuri gertatu zaizkigun gauzei beha: galdu duguna, galduz irabazi duguna.

Poema luzeetan erritmoaren bilaketa eta laburretan birfinketa, dena agerian daukan liburu honek halabeharrez eduki behar zuen agerian edertasuna ere: "Dena kontatu nahi dizut. Zure begietara etorri. Gauza arruntak egin. Kanean eskutik heldu, lotsatzen bazara ere. Elkarrekin etzan sutxakurrak behatzeko".

Egin zezakeen abailduraz Castillo oportunismoa, baina kontrara erabaki zuen denok biltzea lorategi batean, Galaretan, ekaineko eguzkipean, garia berde oraindik, bizi garela ospatzeko. Han jende guztia zegoen harro bere laguna izateaz, *Casti-k* ikusarazita agian horixe dela, alboan egote hutsa, egin daitekeen mesederik handiena. Zintzotasunez idatzitako poemategi bat aurkeztu zigun, orain esku artean urtzen zaidana, pinu artean dabilen haizearekin zorrazkitzeko idatzia. ●